

Mario Zubiaga Garate

Azurmendi edo herri harrotasuna

Ez inor baino gehiago, ezta gutxiago ere. Ez inor baino etnikoago, ez unibertsalago. Berdin. Buruz buruko, parez pareko harremanak nahi dituen hizkuntza, nazioa, herria gara. Gizateriaren aldaera partikularra gara, «izanaren aniztasunaren berezko balioaren» gauzatze lekutua, Kantauri itsasoaren eta Pirinioen artean dagoen komunitate t(r)inkoa. Euskal Herria irmoki defendatzeko argudioak eman dizkigu Azurmendik bere bizitza oparoan.

Pentsalari unibertsala eta lekutua, horixe baita unibertsal izateko modu bakarra. Eta unibertsala diogu, filosofia politiko garaikidean gai gakoak landu dituelako, ez filosofo-errege moduan, filosofo-langile gisa baizik. Ora et labora. Ale bitxi batzuk doaz jarraian.

Nor gara gu, zer gara gu, euskaldunak gara gu. Ilunabarrik ezagutzen ez zuen Gaztelatik –Madrildik– mundua harroputz begiratzen dutenen aurrean edota Paris omen zibikotik lezio ‘ilustratuak’ ematen dizkigutenen gainetik, euskalduna zer den edo ez den esatea euskaldunari dagokio, berari soilik. Zentzu horretan, pentsamendu dekolonialaren aitzindari izan da Azurmendi. Dikotomia faltsuen erauzle: espainol edo frantziar zibilizatu vs euskaldun basati. Zibiko/etniko. Demokrata ala bortitz. Nazio guztiak baitira, aldi berean, etniko zein zibiko. Estatua izateak ematen baitio nazio bati kategoriak inposatzeko gaitasuna. Indarra- ren monopolioaren ezean, estaturik gabeko naziook ezin baitugu gure etnizitatea unibertsal gisa aldarrikatu. Gure demokrazia propioa eraiki.

«Dena erlatiboa da baina dena ez da berdin», zioen 2000. urte gordin hartan, *Euskaldunon Egunkaria*-ko artikulua batean. Elkarrekin eraikitzen ari garen balio bilduma dinamikoa da morala. Kritikoa izatez, ez absolutua. Eta kritikoa den neurrian, etengabe luzatzen digu bide etikoaren inguruko eztabaida Joxek, zer den non eta noiz zilegi, eta zer ez. Hemen kokatu zuen politikaren autonomia erlatiboa, auzi politikoak ezin

baitira ebatzi moralaren eskutik, are gutxiago agintearen jarduera moral ustez absolutuaren izenean. Hortxe «kondenamaniaren» hipokrisia.

Gizabere kooperatiboak garela gogoratu digu Joxek. Indibidualismoa nagusitu den honetan, pertsona polisean eraikitzen dela gogoratu digu, elkarbizitzan eta elkarlanean: ko-operatiban. Marxismoaren doktrina zientifikoaz landa, euskal sozialismoaren aztarna sakonak arakatu dizkigu, munduari zabalik dagoen berdinen komunitatea aldarrikatu, elkarrekin lanean jarduteko harrotasunez eta kemenez jantzia.

Azurmendik lan historiografiko itzela egin zuen. Azkena, *Pentsamenduaren historia Euskal Herrian* liburuan. Hor erakutsi digu euskal nazio-gintza –beste nazio-gintza guztiak bezala– etenik gabeko ekina dela, eta garaian garaiko izpirituarekin bat egiten duela beti herri gogoak, *Volksgeist*-ak: XIX. mende amaierako ezkortasun antropologikotik –Aranak zuen gainbeheraren ustetik– XX. mendeko 60ko hamarkadako baikortasun iraultzailera. Azken loraldi kultural eta politikoan kokatzen da Azurmendiren lana. Izan ere, garai honetako nazio-gintzaren inspiratzaile buruzagia izan da Joxe. Baikortasun antropologikoa besarkatu duen euskal ilustratua. Erromantikoa, adierarik sakonenean.

Baina, gaur, harresiz betetako mundu xenofoboan, abaguneak eskatzen duen galderari –zer-nolako euskal nazio-gintza behar dugu XXI. mendean?– erantzun bidezkoa eta eraginkorra eman behar diogun honetan, haren ahotsa faltako zaigu.

Alta, Joxeren irakaspenak badirau. Hego Euskal Herriaren erakundetzeari esker, ‘berbere baitako’ (*en sí*) euskaldunen kopurua biderkatu dugu azken hamarkadotan. Alabaina, aldi berean, ezagutzaren (hala moduzkoa) eta mintzamenaren arteko arrakala areagotu da berriki. Marxen kontzeptuak gogoan, ‘berbere baitarako’ (*para sí*) euskaldunak izateko adibide ezin hobea eman digu Joxek. Nekez egongo baita bere izanaren kontzienteago den gizasemea. Joxek ez zuen euskara, euskarak zuen Joxe.

Harrokeriarik gabe, harro. Halaxe eraiki zuen bizitza Joxek. Halaxe erakutsi zigun jarraitu beharreko bidea. Ondorengo katebegi xume gisa, haren lanak ahalik eta txukunen jarraitzeko konpromisoa berrettera gatoz hona, gaurko eta biharko beti-gazte ero gisa. Nazio-gintzan txapeldun diren gure pailazo filosofoek ongi laburbildu dute haren mandatua: «Sentitu, pentsatu, ekin».